

XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

3185

AGINDUA, 2021eko maiatzaren 12koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, zeinaren bidez onartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko eremu kalteberetarako Jarduketa Programa, nekazaritzako nitratoekin ura kutsatzeko arriskuari dagokionez.

Nekazaritzatik eratorritako nitratoz ura kutsatzen denean, nitratoen kontzentrazioa handia-
gotzen da lurrazaleko eta lurpeko uretan, eta eutrofizazio prozesuak agertzen dira urtegitan,
estuariaetan eta kostaldeko uretan.

Europar Batasunak Kontseiluaren 91/676/CEE Zuzentaraua onartu zuen 1991ko abenduaren
12an, nekazaritzan erabiltzen diren nitratoek eragindako kutsaduratik urak babesteari buruzkoa.
Zuzentarau horrek bi xede nagusi zituen: kutsadura mota hori murriztea eta prebentzioz jardutea
haren aurka, eta Estatu kideak behartzea nekazaritzako nitratoz kutsatuta dauden urak identifika-
tzera eta drainatzean nitrato bidezko kutsadura sortzen zaien lurrak eremu kaltebera izendatzeko
irizpideak finkatzera.

Espainiako Estatuak zuzentarau horren transposizioa egin zuen 261/1996 Errege Dekretua-
ren bidez (261/1996 Errege Dekretua, otsailaren 16koa, urak nekazaritzako nitratoek eragindako
kutsaduratik babestekoa).

Abenduaren 22ko 390/1998 Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren 9.
eta 10. artikuluen bidez emandako eskumenei jarraikiz, nekazaritzako nitratoekin ura kutsatzeko
arriskua dela eta eremu kalteberak izendatzeko eta haietarako jarduketa programak onartzeko
arauak finkatu ziren.

Abenduaren 22ko 390/1998 Dekretuaren bidez, EAeko lehenengo eremu kaltebera izendatu
zen. Orduz geroztik, eremu kalteberak izendatzen jarraitu da, eta, agindu hau argitaratzeko unean,
7 eremu daude izendatuta.

Gaur egun, EAEn eremu kalteberetarako Nekazaritzako Jardunbide Egokien Kode bat dago,
abenduaren 22ko 390/1998 Dekretuak arautua, eta kalteberatzat jotzen ez diren eremuetarako
Jardunbide Egokien Kodea, ekainaren 7ko 112/2011 Dekretuak arautua.

Ingurumenaren eta Lurralde Antolamenduaren sailburuaren eta Nekazaritza, Arrantza eta Elika-
durako sailburuaren 2008ko urriaren 15eko Aginduaren bidez onartu zen nekazaritzako nitratoekin
ura kutsatzeko arriskua dela eta kaltebera izendatutako eremuei buruzko Jarduketa Plana.

Aurreko paragrafoan aipatutako agindua aldatu zuen Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta
Arrantzako sailburuaren 2009ko azaroaren 2ko Aginduak (2009ko azaroaren 19ko EHAA), eta, era
berean, azken agindu horri akatsen zuzenketa bat egin zitzaion (2010eko azaroaren 16ko EHAA,
220. zk.) eta beste akatsen zuzenketa bat egin zitzaion (2020ko urriaren 20ko EHAA, 206. zk.).

Azken aldaketa egin zenetik urte asko igaro direnez, araua eguneratzea komeni da, eskuragarri
ditugun datu zientifikoak eta teknikoak kontuan hartuta, eta, halaber, Euskal Autonomia Erkide-
goan kutsatzeko arriskuan dauden eremu kalteberen ezaugarriak eta Europako Batzordeak arlo
horretan emandako gomendioak kontuan hartuta.

Horiek horrela, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Jarduketa programa onartzea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko eremu kalteberetarako Jarduketa Programa onartzen da, nekazaritzako nitratoekin ura kutsatzeko arriskuari dagokionez (aurrerantzean, eremu kalteberak). Programa horren testu osoa agindu honen I. eranskinean argitaratzen da.

2.– Jarduketa Programa honen xedea da nitratoen bidezko uren kutsadura murriztea eta kutsadura bera prebenitzea eremu horietan.

3.– Jarduketa Programa hau nahitaez bete beharko da ura kutsatzeko arriskua dela eta gaur egun hala izendatuta dauden eremu kalteberetan. Agindu honen II. eranskinean daude jasota eremu horiek.

2. artikulua.– Definizioak.

2.1.– Eremu kaltebera: otsailaren 16ko 261/1996 Errege Dekretuaren 4.1 artikuluaaren araberrako lursail azalera.

2.2.– Nekazaritzako jardunbide egokien kodea: nekazaritzako nitratoek eragindako uren kutsadura murriztea eta prebenitzea helburu duten xedapenen multzoa (otsailaren 16ko 261/1996 Errege Dekretuaren 5. artikulua). Nekazariak eta abeltzainak ez dituzte nahitaez bete behar.

2.3.– Jarduketa programa: eremu kalteberetan nekazaritzako nitratoek eragindako uren kutsadura murriztea eta prebenitzea helburu duten xedapenen multzoa (otsailaren 16ko 261/1996 Errege Dekretuaren 6. artikulua). Nekazariak eta abeltzainak nahitaez bete behar dituzte eremu kalteberetan.

2.4.– Uren kalitatearen laginketa eta jarraipenerako programa: nitratoen bidezko kutsadurari dagokionez, uren kalitatea ebaluatzeko ekintzen multzoa, otsailaren 16ko 261/1996 Errege Dekretuaren 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

2.5.– Egoera txostena: Europar Batasuneko estatu kideek lau urtean behin Batzordeari aurkeztu behar dioten txostena, otsailaren 16ko 261/1996 Errege Dekretuaren 9. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

3. artikulua.– Uren kalitatearen laginketa eta jarraipenerako programa.

Euskal Autonomia Erkidegoan ingurumen arloko eskumena duen sailak lanean jarraituko du, inplikaturako demarkazio hidrografikoekin (arroko erakundeak) koordinatuta, uren laginak hartzeko eta kalitatearen jarraipena egiteko programa garatu eta gauzatzeko. Horren barruan sartuko dira ur laginak hartzea eta konposatu nitrogenatuak zehaztea, nitratoen edukien joerak aztertzeko, nitratoek eragindako kutsaduraren jatorria ikertzeko eta Jarduketa Programako neurrien eraginkortasuna ikertzeko, otsailaren 16ko 261/1996 Errege Dekretuaren 8. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

4. artikulua.– Informazio, prestakuntza eta aholkularitza ekintzak.

Informazio, prestakuntza eta aholkularitza ekintzak egingo dira Jarduketa Programa honen edukiei buruz, bai eta Nekazaritzako Jardunbide Egokien Kodeetako edukiei buruz ere, nekazaritza jardueretan aritzen diren pertsonen zuzenduta, hala nola ureztatzearen kudeaketa egokiari buruz, gaur egun erabiltzen diren ordezkari laborantza sistemei buruz, txandakatzei buruz, ingurumenarekin bateragarriagoak diren ekoizpen sistemei buruz (ekoizpen ekologikoa, ekoizpen integratua

eta abar) eta Jarduketa Programak behar bezala funtziona dezan eta eraginkorragoa izan dadin interesgarriak izan daitezkeen beste gai batzuei buruz, sektorearen inplikazioa bilatuz.

5. artikulua.– Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiategietarako kontrol neurriak. Kontrol plana.

Agindu honetan xedatutako arauak betetzen direla ziurtatzeko, erakunde eskudunak administrazio kontrolen eta tokian tokiko kontrolen urteko plan bat ezarriko du, eta tokian tokiko kontrolak eremu kalteberetan dauden ustiategien % 1ean egingo dira gutxienez.

Tokian tokiko kontroletan, lurzoruen analisisa ere egin ahal izango da, zerbitzu tekniko eskudunek beharrezkotzat jotzen badute.

6. artikulua.– Berrikustea.

Jarduketa Programa honen edukia berrikusi egingo da; hain zuzen ere, indarrean jarri eta, gutxienez, 4 urtera.

7. artikulua.– Zehapen araubidea.

Honako zehapen araubide hau aplikatuko da Euskal Autonomia Erkidegoko eremu kalteberetarako Jarduketa Programa honetan xedatutakoa betetzen ez denean: Euskal Herriko ingurugiroa babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorraren V. tituluan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen zehapen ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoa.

8. artikulua.– Jakinarazpena.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak Agindu honen berri emango dio Ingurumen eta Etxebizitzako Estatu Idazkaritzari, otsailaren 16ko 261/1996 Errege Dekretuak, urak nekazaritzatik eratorritako nitratoek eragindako kutsaduratik babesteari buruzkoak, 6. artikuluan adierazitakoarekin bat etorritik.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta gelditzen da 2008ko urriaren 15eko Agindua, Ingurumen eta Lurralde Antolamenduko sailburuarena eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadurako sailburuarena, nekazaritzatik eratorritako nitratoekin ura kutsatzeko arriskuan dauden eremuetarako Ekintza Plana onartzen duena (Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuaren 2009ko azaroaren 2ko Aginduaren bidez aldatua) baita hemen aurreikusitakoa urratzen duen maila bereko edo beheragoko edozein xedapen ere.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honetan jasotzen ez denari dagokionez, otsailaren 16ko 261/1996 Errege Dekretuan edo hura ordeztzen duen arauan aurreikusitakoa aplikatuko da.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Hala ere, 2020ko abuztuaren 4ko Aginduaren bidez izendatutako eremu kaltebera berriei dagozkionez, agindu hau aplikatzeak ondorioak izango ditu 2021eko abuztuaren 12tik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko maiatzaren 12a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
ARANTZA TAPIA OTAEGI.

I. ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EREMU KALTEBERETARAKO JARDUKETA
PROGRAMA

Edukia:

- 1.– Aplikazio eremua.
- 2.– Nitrogenoz ongarrizko mugak eta aplikazio garaia.
 - 2.1.– Jatorri organikoko nitrogenoa.
 - 2.2.– Laboreei emandako gehieneko nitrogeno kantitatea, nitrogeno balantzearen arabera, eta haren banaketa.
 - 2.3.– Ongarritze erregistroa.
- 3.– Ongarriak aplikatzeko baldintzak.
 - 3.1.– Laboreei nitrogenoa aplikatzea baimenduta ez dagoen aldiak.
 - 3.2.– Ongarritzea higadura arriskua duten lurretan, malkartsuetan eta inklinatuetan.
 - 3.3.– Ubideetatik gertu dauden lursailetan ongarritzea.
 - 3.4.– Urak hartutako, elurtutako edo izoztutako lursailetan ongarritzea.
 - 3.5.– Ongarriak botatzeko modua.
- 4.– Simaurrak eta mindak ongari gisa erabiltzea.
- 5.– Ur erauzketak.
- 6.– Ureztatze sistemak.
- 7.– Simaurrak eta mindak aldi baterako biltegitzea.
- 8.– Siloratzeko biltegiak.
- 1.– Aplikazio eremua.

Eranskin honetan jasotako arauak nahitaez bete beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoan nekazaritzako nitratoekin ura kutsatzeko arriskua dela eta kaltebera izendatutako eremuen barneko lurzati guztietan (azalera osoan edo zati batean).

- 2.– Nitrogenoz ongarrizko mugak eta aplikazio garaia.

- 2.1.– Jatorri organikoko nitrogenoa. Ezin izango da, inola ere, honako muga hau gainditu: 170 kilogramo nitrogeno organiko hektareako eta urteko.

Hektareako eta urteko 170 kg nitrogeno organikoren muga ez gainditzeko bota daitekeen gehieneko simaur edo minda kantitatea kalkulatzeko, 1. taulako balioak erabiliko dira erreferentzia gisa. Ustategian sortutako simaurren edo minden analisisren bat izanez gero, balio horiek erabili ahal izango dira aplikatutako simaur edo minda kantitatea kalkulatzeko.

1. taula. Nitrogeno edukia eta erabilgarritasuna laborearentzat, ongarri organiko motaren arabera.

Ongarri mota	Materia lehorra	Nitrogenoa	Laborearentzat erabilgarri dagoen nitrogenoa	
			Uda-udazkena (%)	Negua-udaberria (%)
	%	Kg N/t edo m ³		
Behi minda	10,5	3,8	25	40
Txerri minda	4,0	3,6	30	50
Behi simaurra	24,0	5,7	20	30
Ardi simaurra	33,2	10,2	20	30
Zaldi simaurra	33,0	7,0	20	30
Oilo zirina	35,0	19,0	30	50

Ongarri organikoetatik (simaurrak eta mindak) datorren nitrogenoari dagokionez, laborearentzat zenbat nitrogeno dagoen erabilgarri kalkulatzeko, aplikatu den urte sasoiko nitrogeno edukia eta laborearentzat erabilgarri dagoen nitrogeno kantitatea hartu behar dira kontuan (1. taula).

Balio horien arabera, honela egingo da kalkulua:

Erabilgarri dagoen N (kg N/ha) = aplikatutako kantitatea (t edo m³/ha) x N edukia (kg N/t edo m³) x erabilgarri dagoen N (%)/100.

2.2.– Laboreei emandako gehieneko nitrogeno kantitatea, nitrogeno balantzearen arabera, eta haren banaketa.

Gehieneko nitrogeno ekarpena (jatorria edozein dela ere, organikoa edo minerala), labore motaren arabera, eta ONU/ha-tan adierazita (ONU = Ongarri Nitrogenatuen Unitate), ezin da izan 2. taulan jasotako kantitateak baino handiagoa, eta, betiere, kasu bakoitzerako adierazitako aplikazio murrizketak hartuko dira kontuan. Gehieneko N kantitateak kalkulatzeko, kontuan hartu da nitrogeno balantzea, honako hauek aintzat hartuta: a) labore mota bakoitzak ateratzen duen N, haren errendimenduaren arabera; b) lurzoruaren materia organikoaren mineralizazioak emandako N; eta c) euri urekin (ureztapen putzuetan bildutakoak) ureztatzean botatzen den N.

2. taula. Gehieneko nitrogeno ekarpenak (ONU), labore zikloen eta aplikazio murrizketen arabera.

Laboreak	Gehieneko dosia (ONU/ha)*	Banaketa (Aplikazio murrizketak)
Garia eta tritikalea	190	Ereintzan, ongarri nitrogenatu minerala ezin da izan ongarri bolumen osoaren % 30 baino gehiago.
Garagarra	160	Aurrekoaren berdina
Oloa eta zekalea	150	Aurrekoaren berdina
Artoa	220	Ereintzan, ongarri nitrogenatu minerala ezin da izan ongarri bolumen osoaren % 40 baino gehiago.

Laboreak	Gehieneko dosia (ONU/ha)*	Banaketa (Aplikazio murrizketak)
Ilar proteaginosoa	50	Ereintzan bota
Babarruna eta beste ale lekadun batzuk	50	Aurrekoaren berdina
Leka	50	Aurrekoaren berdina
Ekilorea	80	Murrizketarik gabe
Koltza	200	Ereintzan, ongarri nitrogenatu minerala ezin da izan ongarri bolumen osoaren % 30 baino gehiago.
Patata	200	Ereintzan, ongarri nitrogenatu minerala ezin da izan ongarri bolumen osoaren % 30 baino gehiago.
Erremolatxa	200	Aurrekoaren berdina
Lo belarra	140	Murrizketarik gabe
Belazeak	250	Ereintzan, ongarri nitrogenatu minerala ezin da izan ongarri bolumen osoaren % 30 baino gehiago.
Basartoa	160	Ereintzan, ongarri nitrogenatu minerala ezin da izan ongarri bolumen osoaren % 40 baino gehiago.
Bazka gramineoak	180	Aurrekoaren berdina
Bazka lekadunak	50	Aurrekoaren berdina
Bazkatarako gramineoen eta lekadunen nahasteak	70	Aurrekoaren berdina
Mahastia	50	Murrizketarik gabe
Letxugak eta beste barazki hostodun batzuk	120	Ereintzan, ongarri nitrogenatu minerala ezin da izan ongarri bolumen osoaren % 40 baino gehiago.
Tomatea	240	Aurrekoaren berdina
Piperra	220	Aurrekoaren berdina
Porrua eta tipula	170	Aurrekoaren berdina
Azak eta beste kruzifero batzuk	220	Aurrekoaren berdina
Beste ortuari batzuk	170	Murrizketarik gabe
Fruta hezurduna	100	Murrizketarik gabe
Fruta haziduna	100	Murrizketarik gabe

*Lurzati horretan lekadunak landu badira aurretik, edo lugorrian egon bada, 20 ONU/ha murriztuko da gehieneko dosia.

EAEEn erabiltzen diren ureztatze uren nitrogeno kontzentrazioa oso aldakorra izan daiteke, uren jatorriaren arabera. Euri urak metatzeko putzuen kasuan, 10 mg/L baino txikiagoa izaten da (ia dena nitrato forman), eta handiagoa izaten da, aldiz, ureztatze biltzen diren lurrazaleko jariatze uren (bideratuak izan ala ez), lurpeko uren edo beste jatorri batzuetako uren kasuan. Hori horrela, nitrogeno ekarpena deskontatu behar da. N balantzea kalkulatzeko laguntzeko, 3. taula atxikitzen da; ureztatze uren nitrogeno ekarpena zenbatetsi daiteke horren bidez (kg N/ha).

3. taula. Nitrogeno ekarpena (kg N/ha), botatako ur bolumenaren eta nitrato kontzentrazioaren arabera.

Ureztatze uraren kontzentrazioa	Botatako ur bolumena (m ³ /ha)			
	1000	2000	3000	5000
NO ₃ ⁻ (mg/L)	kg N/ha			
2,5	0,6	1	2	3
5	1	2	3	5
10	3	5	7	10
25	7	11	17	25
50	11	23	34	57
NH ₄ ⁺ (mg/L)	kg N/ha			
1	0,8	1,6	2,3	4
2,5	2	4	6	10
5	4	8	12	19
10	8	16	23	39
25	19	39	58	97

2.3.– Ongarritze erregistroa. Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzeko lurzatiengatik ongarritzearen erregistro bat eduki beharko dute, 2014ko azaroaren 18ko Aginduak xedatutakoarekin bat (2014ko abenduaren 9ko EHAA).

3.– Ongarriak aplikatzeko baldintzak.

3.1.– Laboreei nitrogenoa aplikatzea baimenduta ez dagoen aldiak.

3.1.1.– Une oro debekatuta dago ongarri nitrogenatu organikoak eta mineralak aplikatzea landu gabeko nekazaritza lurretan.

3.1.2.– Laboreen ereintza aurreko aldiaren eta laborearen jarrita duten lurzatiengan, debekatuta dago ongarri nitrogenatuak botatzea 4. taulan zehaztutako garaietan, uretara isur daitezkeen nitrogeno kopurua ongarria izateko.

4. taula. Ongarri motaren arabera, debekatuta dago garai hauetan laboreei nitrogenoa botatzea:

Laborea	Simaurrak, hegaztienak izan ezik	Hegazti simaurra eta mindak	Ongarri nitrogenatu mineralak
Zerealak eta koltza	> erein baino 3 hilabete lehenago	> erein baino 3 hilabete lehenago	> erein baino hilabete lehenago, eta ekainaren 1etik uzta bildu arte
Artoa	> erein baino 5 hilabete lehenago	> erein baino 2 hilabete lehenago	> erein baino hilabete lehenago, eta abuztuaren 1etik uzta bildu arte
Ilarra	> erein baino 3 hilabete lehenago	> erein baino 2 hilabete lehenago	> erein baino hilabete lehenago
Ekilorea	> erein baino 5 hilabete lehenago	> erein baino 2 hilabete lehenago	> erein baino hilabete lehenago, eta abuztuaren 1etik uzta bildu arte
Patata	> erein baino 5 hilabete lehenago	> erein eta uzta bildu baino 2 hilabete lehenago	> erein baino hilabete lehenago, eta abuztuko bigarren hamabostalditik uzta bildu arte

Laborea	Simaurrak, hegaztienak izan ezik	Hegazti simaurra eta mindak	Ongarri nitrogenatu mineralak
Erremolatxa	> erein baino 5 hilabete lehenago	> erein baino 2 hilabete lehenago	> erein baino hilabete lehenago, eta irailetik uzta bildu arte
Lekadunak (ilarra, babarruna, leka)	> erein baino 3 hilabete lehenago	> erein baino 2 hilabete lehenago	> erein baino hilabete lehenago
Ortuariak	> erein baino 5 hilabete lehenago	> erein baino 2 hilabete lehenago	> erein baino hilabete lehenago
Mahastia	Maiatzaren 1etik irailaren 30era	Maiatzaren 1etik urtarrilaren 31ra	Abuztuaren 1etik urtarrilaren 31ra
Fruta-arbolak	Maiatzaren 1etik irailaren 30era	Maiatzaren 1etik urtarrilaren 31ra	Abuztuaren 1etik urtarrilaren 31ra

3.2.– Ongarritzea higadura arriskua duten lursailetan, malkartsuetan eta inklinatuetan.

Mota honetako lurretan, arraste arriskuak handiagoak dira forma likidoetarako. % 20tik gorako malda duten lurzatien zonetan, ezin izango dira forma horiek erabili.

EAEko Lurzoruen Higadura Maparen arabera higadura prozesu larriak, oso larriak edo muturrekoak dituzten eremu gisa sailkatutako lurretan, ereintza ongarria lurperatu egin beharko da.

Isurbideak, hesi eremuak, ezpondak eta hegal hondoak belarrez estalita mantenduko dira.

3.3.– Ubideetatik gertu dauden lursailetan ongarritzea.

Lursail horietan ongarriak botatzeko, honako distantzia hauek zaindu behar dira:

Ongarriak kanoi bidez botatzeko, 5 metroko bitarteko tartea utzi behar da ongarritu gabe, eta ubidetik lursailerantz zuzendu behar da kanoia.

Ongarriak ihinztigailu bidez botatzeko, gutxienez 3 metroko tartea utzi behar da ongarritu gabe.

Ongarriak ongarritze makinen, lainoztagailuen edo banagailuen bidez botatzeko, gutxienez 3 metroko tartea utzi behar da ongarritu gabe.

3.4.– Urak hartutako, elurtutako edo izoztutako lursailetan ongarritzea.

Debekatuta dago lursail horietan ongarriak botatzea, edozein motatakoak izanda ere, mineralak zein organikoak, lursaila urak hartuta, elurtuta edo izotzez estalita dagoen bitartean.

3.5.– Ongarriak botatzeko modua.

3.5.1.– Nekazaritza azaleretan, minda ezin izango da bota plater sistemen, haizemaile sistemen edo kanoi bidez (abenduaren 19ko 1078/2014 ED). Halere, debeku hori ez da aplikatuko larre iraunkorrak eta belardiak dituzten lurzatietan (maiatzaren 29ko 82/2018 Dekretua).

3.5.2.– Simaur solidoak lurperatu egin beharko dira, bota eta 48 ordura gehienez ere (abenduaren 19ko 1078/2014 ED). Alabaina, betebeharrak horretatik salbuetsita daude larre eta labore iraunkorrak, zuzeneko ereintzaren edo gutxienezko lur lantzearen bidez eginiko laboreak, eta sats solidoa azalean botatzean, laborea dagoeneko jarrita badago (otsailaren 16ko 20/2016 Dekretua, 5. taula).

5. taula. Simaur solidoak botatzeko jarduera irizpideak, lurzatiaren ezaugarrien arabera.

Lurzati mota	SIMAUUR solidoa botatzea
Larre eta labore iraunkorrak, zuzeneko ereintzaren edo gutxienerako lur lantzearen bidez eginiko laboreak, eta sats solidoa azalean botatzean, laborea dagoeneko jarrita badago.	Ez da beharrezkoa lurperatzea (otsailaren 16ko 20/2016 Dekretua).
Gainerakoak	Lurperatu egin behar da 48 orduko epean (abenduarien 19ko 1078/2014 ED).

3.5.3.– Ongarriak fertirrigazio bidez botatzeko, 2.2 apartatuaren arabera labore zikloari dago-kion gehieneko nitrogeno kantitatea errespetatu behar da.

3.5.4.– Ongarritzeko makinek, mota guztietako ongarriak (organikoak eta ez-organikoak) aplikatzeko, ongi kalibratuta egon behar dute, ongarriak lursailean uniformeki banatzen direla ziurtatzeko.

4.– Simaurrak eta mindak ongarri gisa erabiltzea.

Simaurrak eta mindak ongarri gisa erabili ahal izango dira irailaren 22ko 515/2009 Dekretuan, abeltzaintzako ustiattegietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzen dituenean, xedatutako baldintzetan, edo dekretu horren ordezkoko dekretuan edo dekretuetan xedatutako baldintzetan.

Lurzoruari simaurrak eta mindak botatzean, kontuan hartuko dira lurzorua beraren ezaugarriak eta baldintza klimatologikoak. Gainera, honako gutxienerako distantzia hauek zaindu beharko dira horiek botatzean, nahitaez bete beharreko beste arau batzuk alde batera utzi gabe.

6. taula. Simaurrak eta mindak ongarri gisa botatzeko gutxienerako distantziak.

	Distantzia metrotan
Herriguneak edo proiektzio publikoko eraikin isolatuak (egoitzak, kanpinak, jatetxeak eta abar) hornitzeko erabiltzen diren putzuak, zundaketak eta iturburuak.	250
Herriguneak edo proiektzio publikoko eraikin isolatuak (egoitzak, kanpinak, jatetxeak eta abar) hornitzeko erabiltzen diren gainazaleko ur hartzeak	250 metro, ur biltegiara isurtzen duen arroaren eremuaren barruan
Herriguneak hornitzeko erabiltzen diren urtegiak	250
Esparru pribatuan ur edangarri gisa erabiltzeko lurrazaleko edo lurpeko ur bilketak	100
Ofizialki izendatutako bainurako eremuak	200
Uren edo meatzeen legediei jarraikiz onartutako babes perimetroak	Babes perimetro horietan jasotako mugen arabera

5.– Ur erauzketak.

Ura erauzi behar bada eremu kaltebera bateko edozein lekutan, eta edozein bitartekoren bidez, arroko erakundeak dagokion baimena eman beharko du.

6.– Ureztatze sistemak.

Nitratoak ez arrastatzeko, ureztatze dosiak zatikatuta aplikatuko dira, eta laboreak gehien behar dituen uneetan.

Ahal dela, inhinztatuz ureztatuko da, eta ezin izango da uholde edo ildo bidezko ureztapenik egin.

Ura ahalik eta modu uniformeenean banatu behar da; hortaz, presio desberdinez ez banatzeko ahalegina egin behar da.

Adarrean, batez besteko presioa 2,5 eta 4,0 kg/zm² artekoa izango da, eta presioaren gehieneko aldea batez bestekoarekiko % 20koa izango da.

Lursailak ez dira ureztatuko haizea badabil.

7.– Simaurrak eta mindak aldi baterako biltegiatzea.

Eremu kalteberetako lursailetan dauden abeltzaintza ustiategiek, beren jarduerak sortutako hondakin organikoei dagokienez, nahitaez bete behar dituzte irailaren 22ko 515/2009 Dekretuan (abeltzaintzako ustiategietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartze-koa) xedatutako baldintzak, edo dekretu horren ordezkoko dekretuan edo dekretuetan xedatutako baldintzak.

Simaurra solidoak baldin badira, estalpedun sastegi batean bilduko dira, abereak dauden instalazioetatik bereizita, betiere ustiategiaren kudeaketa sistemak hala eskatzen badu. Simaurtegiaren zorua iragazgaitza izango da, eta likidoak irristatu ahal izateko besteko aldapa izango du. Likidook biltze hobi estanko batera bideratuko dira. Iragazgaitza dela joko da baldin eta ura edo beste fluido batzuk ezin badira igaro.

Simaurra aldi baterako biltzea onartuko da ongari moduan erabiliko den lurzatien eremuan. Simaurra era horretan biltegiatzean, eranskin honen 4. apartatuan xedatutako distantziak errespetatu beharko dira. Simaurra aldi baterako biltegiatzea onartuko da, baldin eta bertako simaurrak eta produktu organikoak kudeatzeko planean jasota badago simaur solidoa ongari moduan erabiliko dela lurzatiren batean edo guztietan. Era horretan biltegiatuko den simaur kantitatea lurzatiak behin ongarrizteko behar den bestekoa izango da gehienez ere.

Deiekzioak modu likidoan erabiltzen badira, hesitutako hobi estankoa (modu naturalean edo artifizialean) beharko da, bertan jaso eta gordetzeko, edo, bestela, antzeko sistemaren bat. Lurrazaleko urak kutsatzeko edo isurketak gertatzeko arriskurik egon ez dadin, bermatu beharko da metatutako likidoak ez duela gainezka egingo.

Erreferentzia orokor gisa, honako hau planteatzen da: ustiategiaren hiru hileko jardunean –denbora osoz diharduela– ukuiluratutako abereek sortutako produktu organikoak biltzeko moduko edukiera izatea gutxienez, honako zifra hauek erreferentzia hartuta (7. taula):

7. taula. Ustiategiaren hiru hileko jardunean –denbora osoz diharduela– ukuiluratutako abereek sortutako produktu organikoak biltzeko moduko edukiera gutxienez.

Azienda		Hiru hilabeterako biltegiatze- edukiera (m ³ simaur/plaza)
Behi azienda	12 hilabetetik beherako abereak	0,96
	12 hilabetetik 24 hilabetera arteko abereak	2,20
	24 hilabetetik gorako abereak (esnetarako eta haragitarako)	3,83

Azienda		Hiru hilabeterako biltegitratze- edukiera (m ³ simaur/plaza)
Ardi azienda	Bildotsak	0,05
	Ugaltzaileak	0,17
Ahuntz azienda	Antxumeak	0,04
	Ugaltzaileak	0,16
Zaldi azienda	24 hilabetetik gorakoak	4,30
	6 hilabetetik 24 hilabetera artekoak	2,15
Untxi azienda	Ugaltzaileak	0,03
	Untxi emea ziklo itxian*	0,09
	Gizentzekoa	0,01
Hegazti azienda	Erruleak	0,004
	Haragitarakoak	0,002
Txerri azienda	Txerri emea ziklo itxian*	4,44
	Txerri emea, kumeduna, titia kenduta (0-6 kg)	1,28
	Txerri emea, kumeduna 20 kg-ra arte	1,53
	6-20 kg-ko txerrikumeak	0,11
	20-50 kg-ko txerriak	0,45
	50-100 kg-ko txerriak	0,63
	20-100 kg-ko txerriak	0,54
	Ordotsak	1,53
Beste batzuk	Pisu biziko 100 kilogramoko	1,00
Behi azienda (1 AzLU)	Deiekzioak eta garbiketa-urak	5,50

*Ama eta ondorengoak barne hartzen ditu, zikloa itxi arte.

8.– Siloratzeko biltegiak.

Abereentzako elikagaiak gordetzeko erabiliko diren siloek nahitaez bete behar dituzte irailaren 22ko 515/2009 Dekretuan –abeltzaintzako ustiattegietako arau teknikoak, higieniko-sanitarioak eta ingurumenekoak ezartzekoa– xedatutako baldintzak, edo dekretu horren ordezkotako dekretuan edo dekretuetan xedatutako baldintzak.

Abeltzaintza instalazioetatik gertu egon beharko dute, eta, edonola ere, instalazioetako osasun azpiegiturako puntu garrantzitsuak dituen lurzatiaren perimetroaren barruan. Biltegien kopurua eta gehieneko bolumena egokiak izango dira ustiattegiko abere kopururako, horiek maneiatu ahal izateko eta biltegitratu beharreko pentzu eta bazka kantitaterako.

Lurzoruek iragazgaitzak izan behar dute, eta estankotasun baldintza optimoei eutsi behar diete, euri urak ez daitezen iritsi biltegitratutako produktura. Iragazgaitza izango dela bermatzeko, material erresistenteak erabiliko dira gainera. Iragazgaitza dela joko da baldin eta ura edo beste fluido batzuk ezin badira igaro.

Lurzoruek gutxieneko malda bat izan beharko dute, siloratze fluidoak ez daitezen geldi geratu, eta haiek azkar hustu ahal izateko biltegitratze hodi espezifikoetara, edo, horrelakorik egon ezean, minda zuloetara. Hormak ere iragazgaitzak izango dira metro bateko altuerara arte. Iragazgaitza dela joko da baldin eta ura edo beste fluido batzuk ezin badira igaro.

Jariatutako likidoak bildu egingo dira, eta ustiattegiko gainerako hondakin urak bezala tratatuko dira.

II. ERANSKINA

Nekazaritzako nitratoekin ura kutsatzeko arriskua dela eta eremu kalteberen mugatze kartografikoa.

<https://www.geo.euskadi.eus/eremu-kalteberak/s69-geobopv/eu/>